

Kalitatea

Euskaldunon Egunkaria, 1992-11-25: 2.

Ez gara euskaldun guztiak era berean heziak izan, eta denok nahitasun eta nahikeria berekoak izatea oso da zaila; berdintsu erakutsiak izan garenok ere ez dugu, eta, fruitu berdinek ematen! Bakoitzak beretik jarri behar bait du, ez da dena heredentziatik espero behar, bai zera! Mari Karmen Garmendiak esan digu egun hauetan 100.000 euskaldun gehiago garela orain hamaika urte baino, ia % 10rekoa irabazia! Ez da nahiko badakigu baina gorapen honi zuzen eta zintzo eutsi dion emakume honek izan ditu behar direnak hainbeste ustelen artean demari eusteko! Kalitatea, erabilerak erakusten omen du oihaletan, eta lanaren emaitzak pertsonetan. Hau da "kalitateaz" idazten jarri naizenean esan nahi nuena. Baina ez hau bakarrik. Bada azken egun hauetan agertu diren inkestetatik batek, EAeko biztanleen artean euskeraren alde edo aurka zenbatzuk dauden agerian jartzen duena, eta hemen erdiek euskeraren aldeko jarrera dute, ehundikan hamasei aurkakoa, eta gainontzekoak *neutroak*. Bada zerbait gure alde! Itxaropen gutxiko pertsonak esango du alde egotea ez dela nahiko euskeraz hitzegiteko, eta arrazoi du, egia gertatzen denez; halere, neuk "herri-iritzia"z zerbait ikasteak suertatu zaitenez, ikasia dut hemen ere kalitateak garrantzi handia duela, euskal sentipena berekin duena berea den zerbait defendatzen jartzen denean, motibazio eta kemen gehiago duela euskerarik axola ez zaion neutroak baino. Aurrera goaz!